




**Urnietako EAJ-PNVko alkategaia izango da Jorge Segurado, 2027ko udal hauteskundeetan / 2**




**Ander Elustondo Esteban urnietar gaztearen heriotza kolpe latza izan da herritarrentzat / 3**



## Jairik jai, uda osoan

Kaletxikin jendetza ibili ostean, auzoko jaien lekukoa hartuko du Karrikak / 8-13



# Herri eta auzo jaiak

*Aiurri.eus webgunean*

- Argazkiak • Bideoak • Albisteak

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

# Jorge Segurado, EAJ-PNVren alkategaia

Hirugarren agintaldian Urnietako alkate izateko urratsa emateko prest agertu da egngo alkatea. 2020an hartu zuen kargua, eta ziklo eta erdi bete ostean, lau urte gehiagoz herriko ardura nagusiak hartzeko urratsa eman du Seguradok

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Honako hitz hauekin egin zuen iragarpena, aurreko asteburuan, Urnietako alderdi jeltzaleak: "EAJ-PNVk Jorge Segurado izendatu du berriro alkatetzarako hautagai datozen udal hauteskundeetarako, horrela herritarrekiko gertutasunak, egonkortasun instituzionalak eta udalerriarren garapenak markatutako kudeaketa-ibilbidean duen konfiantza berretsiz".

Segurado 2020ko urriaren 13az geroztik da Urnietako alkate, 2019-2023 agintaldian Mikel Pagolaren lekukoa hartu zuenetik. 2023ko maiatzean zerrendaburu izan zen eta hauteskundeak ira-



Imanol Pradales lehendakaria eta Jorge Segurado Urnietako hautagaia. EAJ-PNV

bazi zituen. Geroztik, PSE-EE-rekin koalizioan agintzen ari dira jeltzaleak Urnietan. Iragarpena egin berriro, beraz, eta 2023an egin bezala, datozen urteko bozetan ere Segurado izango da jeltzaleen hautagaia.

Ohar berean hautagaiaren sentipena jaso dute: "Seguradok bere esker ona adierazi du alderdi jeltzaleak emandako konfiantzagatik eta etapa berri honi ilusio berrituekin eta Urnietaren alde lanean jarraitzeko borondate berdinarekin ekingo dio". Alkategai harago, hautagaitza hizpide du alderdi jeltzaleak: "EAJ-PNVk behin eta berriz azpimarratu du hautagaitzak proiektu sendo baten jarraipena irudikatzen duela, etorkizuneko ikuspegia duena, herritarrekiko erantzukizunetik, plangintzatik eta gertutasunetik eraldatzen jarraitzera bideratua".

**"SEGURADOK ESKER ONA ADIERAZI DU ALDERDI JELTZALEAK EMANDAKO KONFIANTZAGATIK"**

## Hautagaitza aurkezten lehenak

Udalerrietan alderdi politiko guztiak hasi dira 2027-2031 ziklo berria prestatzen. Andoainen eta Urnietan hautagaiak aurkezten lehena EAJ-PNV izan da. Andoainen, bi aste atzera, Mikel Urdangarin Castro aurkeztu zuen alderdi jeltzaleak. Gaztea da eta estrainekez ariko da udal politikagintzan.

Urnietan eskarmentuaren aldeko apustua egin dute jeltzaleek. Izan ere, alkatea da Segurado eta orain arteko ibilbideari jarraipena eman nahi diote. Ikustear da EH Bilduk eta PSE-EEK zein hautagai aurkeztuko dituen 2027ko deialdira. Bazterrean utzi gabe PP eta beste alderdi gehiago.

49. zenbakia 2026ko ekaina

# IKUSBERA

## EKLIPSEA

Baina nora begiratu behar da?

Ez dakit, Ez dut tutik ikusten!

Bataurreko eleganteak ditugu behintzat

**AIURRI**

# Harpidedun izatearen abantailak

# Elustondo gaztearen heriotzak saminez bete du Urnietako herria

24 urte zituen Ander Elustondo Estebanek, aurreko larunbatean, mendi-istripuan heriotza aurkitu zuenean. Ezbeharrak eragin handia izan du Urnietako gizarte-bizitzan. Pertsona atsegina eta alaia, halaxe gogoratzen dute ezagutu zutenek

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Albiste iritsi orduko herrian antzeman zitekeen giroa erraz uler zitekeen: ez baikaude heriotzara eta, are gutxiago, hain gazte hiltzen direnen albisteara ohituta. Zorigaiztoko albiste Piriniotatik iritsi zen, larunbat arratsaldean, Pic du Midi d'Ossauko paraje eder eta ezagun haieztatik. Lehen notizia, gehienontzat, Ici.fr hedabideen eskutik iritsi zen. Euskarara itzultita, albistearen muina, jarraian: "24 urteko pertsona bat hil da larunbat honetan, uztaileak 4, Pic du Midi d'Ossauko jaitsieran, Laruns udalerrian. 14:00ak aldera, jaisten ari zela, beste sei txangozaleekin batera, gazteak irrist egin du eta 20 bat metro egin du behera, berarekin zeuden txangozaleen arabera. Arroken aurka kolpatuz lurreratu da". Orduak aurrera egin ahala, albiste azkar batean iritsi zen Urnietara. "Elus" aski ezaguna udalerrian. Hala, kolpe latza izan da ezbeharra. Ez soilik gertukoentzat, baita herrikide askorentzat ere.

Aiurriko irakurleek, gainera, gogoan izango dute hasieran Ander Elustondo gure kirol albisteetako protagonista izan zela. Urnietako Artola Harategia eskubaloitako taldeko Eneko Vicente eta Unax Jimenezekin batera hainbat bideoetan parte hartu zuen, MATX egitasmoaren baitan. Atsegin eta irribarretsu agertu zen Elustondo, Urnietako kiroldegian egindako grabaketan.

## Zorigaiztoko albisteak, gazteen heriotzari loturikoak

Azken urteotan, hildako gazteen heriotzak eragin handia izan du Urnietako gizarte-bizitzan. Baidira, bereziki, bi aipagarriak.



Ander Elustondo Esteban, UKEko kamiseta jantzita, 2026ko urtarrean, Aiurri-Matx ekimenerako egindako grabaketan. AIURRI

- Amaia Agirre Gonzalez. Urnietar gazteak mendian aurkitu zuen heriotza, hiru urte eta erdi atzera. Gertaera sekulako kolpea izan zen Urnietan eta inguruetan. Ezbeharra Patagoniako Fitz Royn gertatu zen. 3.405 metroko garaierakoa, zailtasun handiko igoera da, eta mundu osoko eskalatzaileak saiatzen dira gailurrera iristen. Elite mailako kirolaria zen eta istripu

hartan hil ziren bi lagun: Amaia Agirre urnietarra eta eta Iker Bilbao soka-kidea.

- Alain Urria Iraola. Urte zahar gauean hil zen, moto istripuan, Hernaniko GI-2132 errepidean. Zehazki esanda, kotxe baten eta motorraren arteko talkaren ondorioz aurkitu zuen heriotza. Xoxokako Jai Batzordeko kidea, ezbeharra sekulako kolpea izan zen ezagutu zuten gertuko eta herrikideentzat.

## Erreakzioak



### Urnietako Kirol Elkarte

"Urnietako KE Eskubaloia osatzen dugun guztiok oraindik sinetsi ezinik gaude. Ez dago sentitzen dugun mina adierazteko hitzik. Gurekin partekatu dituen urteak, kantxan zein kantxatik kanpo utzitako oroitzenak, eta bere izaera betiko gertuko dira gurekin. Une latz hauetan, gure doluarekin eta besarkadarekin beroenak helarazi nahi dizkiegu bere senide, lagun eta gertuko guztiak. Haien minarekin bat egiten dugu. Beti izango zara Urnietako EK Eskubaloien familiarren parte! Ez zaitugu inoiz ahaztuko Elus! Lurrago har zaitzala, lagun".


### Urnietako Udala

"Urnietako atsekabetuta dago atzo arratsaldean gertaturiko Ander Elustondo Esteban urnietar gaztearen heriotzaren aurrean. Ander mendi-ibilaldi bat egiten ari zen Frantziako Pirinio Atlantikoak departamenduan, Pic du Midi d'Ossau menditik bere taldearekin batera jaisten ari zela, istripu larri bat izan zuen. Urnietako Udalak bere tristura eta atsekabea helarazten die Anderren senide eta lagunei zorigaiztoko gertaera honen aurrean. Aldi berean, babesa eta maitasuna erakutsi nahi dizkie une zail hauetan, eta behar duten laguntza eskaintzen die".



Urnietako  
udala

# Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



**AIURRI.EUS**  
**ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA**



Uxue Sanchez Garmendia, lagunekin batera, EHZ jaialditik bidalitako argazkian. UXUE SANCHEZ

## EHZn, Aiurri esker

Aiurrikide izateak abantailak ditu eta horietako bat sarreren zozketan parte hartzea da. Euskal Herrian aski ezaguna den EHZ jaialdira joateko, esaterako, bina sarrera irabazi zituzten Uxue Sanchez Garmendiak eta Gorka Alustiza Nazabalek

### Errdakzioa ANDOAIN

Aiurrikide izateak saria dakar. Esaldi hori maiz darabildu Aiurri, zozketa antolatzen dugun gehienetan. Oparien zerrenda zabalda da: produktu ekologikoen Aspilla saskia, Arrutiko opilak, Kuttun goztoegiko gosaria, eskualdean ekoiztutako sagardobotilak, Basteroko zein Sarobeko kultur ekitaldien sarreren zozketa... EHZ musika jaialdia ekaineko azken asteburuan izan zen eta, Aiurrikideen artean, irabazleak Uxue Sanchez Garmendia eta Gorka Alustiza Nazabal izan ziren. Sariaren frogagiria iritsi da erredakzioara, argazki bidez.



Gorka Alustiza Nazabalen lagunekin batera irabazten EHZko sarrera bikoitza. ALUSTIZA



www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.  
Tel.: 943 300 732.  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

**Maketzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:**  
Garbife Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:**  
Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:**  
Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).

**Diseinua:** Goiiena / TOKIKOM.  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:**  
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.  
Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Foru Aldundia



KULTURIA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SALA

Babestutako hedabidea

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



## NIRE USTEZ

MAILU ARRUTI ANDOAIN

### Lazoa?

Lehenengo eta behin, mila esker Errespetatu Andoain plataformari herria horrela defendatzeagatik. Horretarako hautatu dituzten hautetsi batzuk egiten ez duten bezala.

Uztailak bateko arratsaldean, Bastero Kultugun, Aldundia beraien proiektua azaltzera etorri eta eman zuten espektakulu tamalgarriari buruzko gogoeta batzuk partekatu nahi nituzke.

Diskurtso lapurreta bat izan zen. Errespetua gora eta behera aipatuz, errespetu falta galanta erakutsi zuten Andoaingo herriarekiko. Errespetua ez da saldu edo erosten. Errespetua irabazi egiten da. Askotan aipatzeagatik ez da lortzen errespetua. Entzutera etorri omen ziren. Entzun? Entzun nahi izan balute, lehentxeago etorri behar zuten. Andoainek garbi esan zuen: 3.000 biztanlek parte hartu zuen galdeketa. Garbi eta ozen adierazi zuten Andoainentzat nahi dutena.

Herrietara gerturaten ari omen dira. Zertara? Kanpaina egitera? Pertsona erdigunean jartzen omen dute. Eta saihebidetza ukatzeko arrazoi bakarra ekonomikoa dela beraien aitortu zuten. Beraz, erdigunean jartzen duzuen ekonomia da. Dirua. Eta ez ongizatea, segurtasuna, natura edo osasuna.

Herrigintza zer den ere ez dakizu Eider Mendoza. Herrigintza aritu garenok urtetan, ez dugu zurekin topo egin inon. Bestalde, inork egin du estimaziorik lazoa eta beste zatikako "soluzio integral" horiek zenbateraino konponduko luketen "Gipuzkoako trafiko arazo nagusia"? Zein epetan?

Aldundiak proposatzen duena egiteko irizpide bakarra ekonomikoa bada, demostratu beharko da benetako soluzioa izango dela epe luzera. Ze... ezagutu ditugu errepide horretan bertan, N-1ean egindako sarrera-irteerak Amasa-Villabonan, Andoain eta Lasarte-Orian. Istripu pila baten ondoren modifikatu ziren guztiak.

Epe motzera jokatu gero, moldaketak datoz. Eta, azkenean, saihebidetza egiten bukatuko da aurretik diru guzti hau xahutu eta gero. Merkeena ala garestiena izango da?



AIURRI

## Nazioarteko lankidetzak

Urnietako Udalak nazioarteko kooperazio proiektuak laguntzen jarraituko du, Euskal Fondoarekin lankidetzan. Hitzarmena sinatu berri dute Urnietako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Consuelo Frutosek eta Euskal Fondoako lehendakari Nati Lopezek. 18.000 eurotik gora bideratuko dira hiru lurraldeetara: Kubara (Habanako Historialariaren Bulegoa), Saharara (Garraio eta Energia Ministerioko zuzendaritza nagusia) eta El Salvadorra (emakumeen berdintasuna eta giza eskubideak sustatzeko estrategiak).

# "Konexiorik handiena nire belaunaldikideekin lortu dut"

**XABAT MINGUEZ** KAZETARIA

ESCIVlko ikasleak praktikaldia egin zuen Aiurri eta, uda honetan, lanean ariko da erredakzio-taldean. Kamera aurrean jarrita, azkar batean ezagun egin da

**Lide Ruiz Telleria** ANDOAIN

**Xabat, Aiurri kamera aurrean egiten ari zaren lanari esker ezagun egin zara inguruotan. Berezkoa duzu kamera aurrean aritzeko gaitasuna?**

Bai. Egia da, azken urteetan gehiago landu dudala, orain arte, ez nuen sekula pentsatu profesionalki alor honetan jardungo nuenik, baina, bai, gustura aritzen naiz.

**Ez duzu erreparorik izaten kamera aurrean jartzeko. Zure toki naturala dela esango zenuke?**

Bai, kamera aurrean jartzea ez zait batere kostatzen, oso eroso egoten naiz, eta gainera, asko gustatzen zait jendearekin horrela komunikatzea. Ez dit erreparorik ematen.

**Erredakzioko gainerako kideek ez bezala, zuk aurpegia jartzen diozu albisteari. Zein erreakzio nabari duzu inguruan?**

Uste dut, oro har jendea gustatzen zaiola informazioa era bisual batean jasotzea. Gaur egun, gero eta pertsona gutxiagok irakurtzen dituzte egunkari eta aldizkariak, eta formatu berri hau gustuko dutela esango nuke, batez ere, nire belaunaldikoekin nabaritu dut konexiorik handiena.

**Zer da gehien harritu zaituena lan honetan?**

Ez dut uste, denbora tarte honetan, ezerk harritu nauenik. Banekien non sartzen ari nintzen, eta oraindik asko daukat ikas-



Xabat Minguez hasi berria da Aiurriko erredakzioan. AIURRI

## "Oso gustura nago Aiurri"

**LIDE RUIZ TELLERIA** KAZETARIA



Lide Ruiz Telleria kazetaria donostiarra da. AIURRI

**Lide, urtearen hasieratik ari zara Aiurriko erredaktore lanetan. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Oso esperientzia ona izaten ari da. Orain arte ez nuen erredaktore lanetan aritzeko aukerarik izan, eta oro har, asko ikasten ari naizela esango nuke, oso esperientzia aberasgarria izaten ari da.

**Urnietan eta Andoainen ari zara lanean, zaila egiten al da martxan dagoen dinamika batean murgiltzea?**

Hasieran zaila izan zen, dena berria baitzen niretzat. Bestalde, Urnietako eta Andoaingo herritarren harrera oso ona izan da hasieratik, eta horri esker, askoz errazagoa egin zait bi herrietako dinamikara egokitzea.

**Idatzizko kazetaritzan trebatzen ari zara. Zer egiten zaizu zailena eta, kontrara, erosoena?**

Ni Donostian bizi naizenez, zailena Urnietan eta Andoainen egunerokoan gertatzen diren kontuen berri izatea da. Normalean, lankideek ematen didate azken albiste berri, ni ez bainago herri horietako errealitatearekin horren konektatuta. Zailena hori dela uste dut. Erosoena, aldiz, herritarrekin zuzenean hitz egitea dela esango nuke, elkarrizketak egitean nabaritzen da herritarrek oso prest daudela gurekin kolaboratzeko, eta aldi berean, oso eskertuak egoten dira Aiurriko lekutxo bat eskaintzeagatik.

**Donostiarra zara. Zer moduz moldatzen zara herrietan?**

Esan dudana bezala, Urnietan nahiz Andoaingo herritarren harrera oso ona izan da, eta horrek asko erraztu du ni eroso sentitzea. Donostiarra naizenez, niretzat dena berria izan da, baina jendeak adierazitako gertutasunari esker egokitzapena ez da horren zaila izan. Lankideek ere asko lagundu didate, eta horregatik, dena errazagoa izan da.

**Kazetaritza bada zuretzat aukera, herri eta pertsona berriak ezagutzeko?**

Bai, Aiurriko erredaktoretza lanetan aritzeari esker jende asko ezagutu dut. Izan ere, tokiko kazetaritzak herritarrekin harreman zuzen izateko aukera ematen du. Hori dela eta, albisteak herritarrekin dugun harreman zuzenaren bitartez lantzen ditugu, eta horrek herria eta bertako errealitatea era sakonagoan ezagutzeko aukera izugarria ematen du.



Xabat Minguez. AIURRI

teko, baina ez da ezer egon bereziki harritu nauenik.

**Multimedia lana da gehienbat egiten duzuna. Eta, hain zuzen, zure belaunaldiak informazioa modu horretan kontsumitzen du.**

Bai, nire belaunaldiko jende gehiena sare sozialen bidez informatzen da, egun, oso jende gutxi ikusten du teleberri bat, eta aldizkari bat irakurri, zer esanik ez. Gazte gehienak sare sozialen bidez informatzen dira.

**Bereziki jaei loturiko hitzorduak landu dituzu. Festazalea zara?**

Ez, guztiz aurkakoa. Festak ez zaizkit asko gustatzen; jende asko dagoen tokitan ez naiz bereziki eroso sentitzen, baina harritu nau zer ondo moldatu naizen ikusteak, eta azkenean, gustura aritu naiz lanean.

**Goierriarra zara, ondo moldatzen zara inguruotan?**

Oso ondo moldatzen ari naiz, Goierri baino hobeto. Ezaguna ez izateak asko laguntzen du, gehiago kostatuko litzaidake Goierri alor honetan aritzea, jende gehiago ezagutzen dudalako, eta zailagoa izango litzateke niretzat etengabeko espazio horretan eroso sentitzea. Hemen inorrek ez nau ezagutzen eta oso gusturua aritzen naiz.

**Uda honetan Aiurri.eus-en eta sareetan ikusiko zaitugu, beraz. Erronkarako prest zaude?**

Gutziz prest nago, oso gogotsu eta ilusio handiarekin.

**"AIURRIKO JARDUNEAN, KAMERA AURREAN, OSO EROSO EGOTEN NAIZ"**

# Ikasleen praktikaldia Aiurriko erredakzioan

Lanbide Heziketako lau ikasle izan dira, ikasturte honetan, praktikaldia egiten Aiurriko erredakzioan. Diseinu grafikoa eta multimedia alorretan jardun dute, nagusiki. Euren formakuntzan bidelagun da Andoaingo eta Urnietako astekaria

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolako (ESCIVI) bi ikasle egin dute praktikaldia, ikasturte honetan, Aiurriko erredakzio taldean. Lanbide Heziketako gorengo graduko lehen ikasturteko ikasleak dira Joanes Goikoetxea nafarra eta Xabat Minguez goierriarra. Aiurri.eus eta sare sozialen aritu dira lanean eta, haiei esker eta haien bitartez, kazetaritza digital berrian murgildu da tokiko hedabidea.

Praktikaldia amaituta, gainera, Aiurriarekin lotuta jarraitu dute. Joanes Goikoetxeak, ikasturtea amaitu bitarte, hainbat lantxo egin ditu webgunean. Bereziki, "Azkar batean" sortu berri den atala aberastuz.

Xabat Minguez udako lanaldian ariko da Aiurri eta dagoeneko aski ezaguna da gure artean. Bereziki, kamera aurrean jarrita egin dituelako kazetaritza-lan gehienak. Sanjuanetan, Urnietako Akelarrean, Kaletxikiko jaietan... haietan guztietan festaren lekuko zuzena izan da eta hori helarazten ahalegindu da bideo-sortaren bitartez. Hainbatetan, gainera, gonbidatuak jarri ditu kamera aurrean hizketan. Esaterako, San Juan jaien hasieran eta Urnietako San Juan bezperako Akelarrean.



Irene Zubigaray lasartearra eta Libe Nuño andoaindarra. AIURRI

Irene Zubigaray lasartearra eta Libe Nuño andoaindarra diseinu arloan trebatzen ari dira. Urnietako Salestar ikastetxeko ikaslea da, lehena. Eta Donostiako Ceinprokoa, bigarrena. Bi kasuetan, lankidetzahitzarmen bana sinatu du Aiurri dagokion ikastetxearekin.

Irene Zubigarayk hiru asteko praktikaldia egin zuen Aiurri, besteak beste, diseinu eta digitalizazio lanetan arituz. Lanetako bat aipatzearen, marka berri bat sortzeko logotipoaren garapena egin du.

Libe Nuñorena praktikaldi luzeagoa izan da eta hark es-



Joanes Goikoetxea. AIURRI



Xabat Minguez. AIURRI

kuorriak, kartelak eta egutegiak diseinatu ditu. Bi ikasleek lan errealak egiten jardun dute, Aiurri izan diren bitartean.

Tokiko hedabideak talentu berrien formakuntzan bidelagun izan nahi du eta, horrexegatik, biderkatu egin ditu hitzarmenak ikastetxeekin.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

Babestutako hedabidea



Ana Gaspar eta Alba Moreno, Karrika auzoko kioskoaren ondoan. AIURRI

# "Urtez urtez, geroz eta jende gehiago dator Karrikara"

**ANA GASPAR ETA ALBA MORENO** KARRIKAKO JAI BATZORDEKO KIDEAK  
Urteen poderioz pilatutako eskarmentua baliatuta, eta aurreko urteetako egitaraua oinarri hartuta, denbora tarte txikian, hiru egunetako ospakizunak iragarri dituzte

izaten ari dira. Azken erosketa batzuk egitea gelditzen zaigu, baina bestela, dena lotuta dugu. Lan asko den arren, guretzat ere oso pozgarria da, antolakuntzan aritzea.

**Gogo berezia antzematen duzue auzoan?**

**A.M.** Bai. Jendea gogotsu dago. Egia da, prestaketan parte hartzera apenas animatzen den jendea, baina festa egunetan gehienak prest egoten dira laguntzeko. Nire ustez, arazoa da jende gehienak ez dakiela festen atzean dagoen lan guztia. Nahiz eta antolakuntzan parte hartzera animatu, kosta egiten zaie pauso hori ematea. Nolanahi era, festa egunetan jende asko gerturatzen zaigu laguntzeko prest. Baina, bai, jendea oso gogotsu dago festetarako. Aurten ez dugu egitaraua paperean argitaratu, baina, sare sozialetan informazio guztia dago, eta herrian zehar kartelak jartzen joango gara.

**Andoaindik datozen festazaleak ere garrantzi handikoak dira, ezta?**

**A.M.** Bai, ostiralean, batez ere, auzokoa ez den jende asko etortzen da. Ostiralean "rock eguna" ospatzen dugu, eta jende askok interesa adierazten du. Horrez gain, playback saioak ere arrakasta handia izaten du, eta baita ere umeen puzgarriek.

**A.G.** Bai, ohitura hartu dugu ostiralean Rock kontzertuak jartzeko, batez ere, gustu guztiak kontuan hartu nahi ditugulako. Egun bakoitzean gauza desberdin bat eskaintzen dugu.

**A.M.** Ohitura hartu dugu ostiralean rock musika eskaintzeko, eta jendea zai dago ea zer ekarriko dugun, interes handia pizten du.

**A.G.** Bai, urtez urtez, gero eta jende gehiago etortzen dela esango nuke.

**Denera zenbat lagun ibiltzen dira laguntzen jaietan?**

**A.M.** Gure bizkar dago antolaketaren ardura nagusiki, esan bezala, baina ekitaldi jakinetarako beti azaltzen zaizkigu kolaboratzaileak edozertarako prest.

**"LAN ASKO IZAN ARREN, ZIRRARA HANDIKOA DA GURETZAT FESTAK AURRERA ERAMATEA"**

**Lide Ruiz Telleria** ANDOAIN  
**Karrikako jaiak ostiraletik igandera izango dira. Aurreko egun hauek estres handikoak dira? Zeintzu dira azken orduko lanak?**

**Ana Gaspar.** Estresa nabaria da, bai. Izan ere, antolakuntzan Albaren senarrak eta beste kide batek laguntzen digun arren, Alba eta biok gara dena antolatzen ibiltzen garenak. Gogorra da antolakuntza bizitza beste alor batzuekin uztartzea, nire kasuan, ni lanean ari naiz, eta Alba, ikasten ari da. Gure denbora librean ateratzen dugun tarte txikitik antolatzen hasten gara; esate baterako, atzo gauerdiko hamabiak arte gelditu ginen. Bestalde, lan asko izan arren, zirrara handikoa da guretzat Karrikako Festak aurrera eramatea.

**Alba Moreno.** Bai, urduritasun handiko egunak dira, dena ondo ateratzea nahi dugu, eta azken prestaketak amaitzeko egunak

### Zein da zuetako bakoitzarentzat Karrikako jaietako ekitaldi kuttuna edo gogokoena?

**A.M.** Niretzat, *Chiquitita* (Abba) abesten dugun momentua da. Festak amaitzean, denak batzen gara *Chiquitita* abesteko eta niretzat hori da momentu hungarriena. Dena ondo atera dela ikusten dugu, eta Ana eta biontzat oso momentu berezia da, urtero negar egiten dugu.

**A.G.** Niri ere poz handia ematen dit umeak eta gazteak disfrutatzen ikusteak, horrek ez dauka parekorik. Niretzat, festak, oso bereziak dira. Urtean zehar ez gara jende askorekin elkartzen, baina festak iristen direnean, badakigu auzokide guztiekin batuko garela. Hori oso polita da.

**A.M.** Bai esfortzu handia da, baina azkenean, nahi dugulako egiten dugu, gustu handiarekin, nahiz eta lana gogorra den.

**A.G.** Bai, lan handia dago atzetik, baina jendearen erantzuna oso pozgarria da. Ez bakarrik, auzokoena, baizik eta Andoain guztiarena. Hurrengo urteei begira, ikusten dut belaunaldi berriak antolakuntzan sartzen hasiko direla, adibidez, Albaren semeak gaur egun parte hartzen ibiltzen dira, eta seguruenik haiek izango dira antolaketaren lekukoa hartuko duten hurrengoak.

### Jaiak aurrera ateratzea kosta egiten da? Nola zaudete animoz?

**A.M.** Indartsu jarraitzen dugu. Azkeneko egunetan estres nahiko handia izaten dugu, lan handia baita, eta beldur puntu bat ere sentitzen baitugu, dena ondo ateratzea nahi dugulako. Azkenean, ordea, ziurtasunez jokatzeko dugu badakigulako dena ondo irtingo dela.

## Aurten ere, danborradarik gabe



"Pena handiarekin, aurten ere, ezin izan dugu danborrada antolatu, gastua oso handia baita. Ez ditugu ez danborrik ez barrilik, urte askotan elkarte batzuk eurenak utzi dizkigute, baina lan handia da, ezin izan dugu aurrera atera. Pena handia da, baina, ez dugu baliabiderik, txarangaren gastua, adibidez, oso handia da, eta ezin izan dugu gure gain hartu".

**A.G.** Bai, poza ez ezik, kezka ere izaten ditugu, baina azkenean jendearen erantzuna izugarria izaten da.

**A.M.** Bai, oso gogotsu gaude, ostirala iristeko desiatzen.

### Noiz hasten zarete jaiak antolatzen?

**A.M.** Aurten oso berandu hasi gara, konpromisoak genituelako lanari eta ikasketei lotuta. Baimenak epe barruan eskatu ditugu, baina, hori kenduta,

ekainaren erdialdean hasi ginen antolaketarekin. Hilabete baino gutxiago izan dugu, eta hala ere, uste dut emaitza ona izango dela.

**A.G.** Egia da, jendeak ere eza gutzen gaituela, orduan, gauzak lotzeko askotan mezu batekin nahikoa izaten da, puzgarrien kasuan, adibidez.

**A.M.** Bai, konfiantza horri esker gauzak askoz errazagoak dira,

eta telefono bidez gauza gehienak lotu ditzakegu.

**A.G.** Gainera, auzoko eta herriko jendea ikusgarritasuna ematen saiatzen gara, eta horregatik, DJ-ak, gehienetan, Andoaingoak izaten dira.

### Egitaraua ikusi gabe andoaindarrek badakite zein den igande arratsaldeko plana. Hori berez ona da ezta?

**A.M.** Bai, playback saioa auzoaren ikur bilakatu da. Duela urte asko jarri zen martxan, eta ez da beharrezkoa guk horren berri ematea, jendea zuzenean etortzen da. Beste ekintza batzuk aldatu ditzakegu urtearen arabera, baina argi dugu Playback saioa ezin dugula kendu, jendea ilusio berezia egiten dio.

**A.G.** Iazko, berrikuntza berezi bat izan genuen, eta "Got Talent" moduko saio bat antolatu genuen. Playbackz gain, beste emanaldi batzuk ere egin zituzten; izan ere, ume batzuk abestu nahi zuten, beste batzuk, berriz, instrumentuak jo. Denei aukera emateko antolatu genuen saio berezi hori. Erantzuna izugarria izan zen, umeak ez ezik, helduak ere aritu ziren.

### Su artifizialak iragarri dituzue. Karrikatik harago ikusiko dira...

**A.M.** Iaz, ikusi ziren, ibaitik bota genituelako.

**A.G.** Aurten ere, ibaiaren beste aldean jartzea pentsatu dugu, gero eta jende gehiago datorrelako, eta espazioa gero eta murriztagoa delako.

## "JAI BATZORDEKO KIDEAK OSO GOGOTSU GAUDE, OSTIRALA IRISTEKO DESIATZEN"



Ostiralean piztuko dute jaien hasierako suziria. AIURRI



Sagardo dastaketa igande eguerdian egingo dute. AIURRI



Kresala, ostiralean. KRESALA

## Karrikako jaien egitaraua

### Uztailak 10, ostirala:

19:30 Txupinazoa.  
20:30 Bokata-afaria.  
23:00 Kresala taldea.

### Uztailak 11, larunbata:

11:30 Puzgarriak eta apar-festa.  
14:00 Makarroiada eta bingoa.  
16:30 Puzgarriak.  
18:30 Dantza-tailerra.  
22:30 Bang Royale taldea.  
DJ Louky.

### Uztailak 12, igandea:

11:30 Meza, Sorabillan.  
12:00 Toka txapelketa.  
12:30 Sagardoa eta pintxoak.  
16:00 Karrikako mus txapelketa.  
19:00 Got Talent Karrika erakustaldia.  
19:45 Play-back saioa.  
21:00 DJ Donoso.  
23:30 Azken traka eta su-artifizialak.



Play-backa, igandean. AIURRI



Gozategiren kontzertuan jendetza elkartu zen Kaletxikiko festagunean. AIURRI

# Auzotar eta festazale askoren bilgune izan da Kaletxiki, jaietan

Topikoei heldu gabe, esan daiteke, benetan, gainditzen ari direla arrakasta-maila urtez urte, Kaletxikiko jaiak. Joselu Anaiak eta Gozategi taldeen gauak gailurra jo bazuen ere, ez ziren atzean geratu gainerako ekitaldiak

## Xabier Lasa ANDOAIN

Egaña, Loiarate, Laburu eta Igua-ranen ateraldi bikaineko bertso-saioarekin ekin zioten festari kaletxikitarrek. Eta hortik aurrera, egitarauko ekitaldi guztiek jaso dute harrera beroa

auzotarrengandik ez ezik, baita kanpotarrengandik ere. Denek eduki dute erakargarritasuna modu batera edo bestera, haur, gazte nahiz helduentzat.

Guztiak banan-banan aipatzea ezinezkoa izanik, bereiziko ge-

nituzke sagardo zaleentzat ezinbesteko bilakatu den ospe handiko Sagardo txapelketa, beti-betiko kaletxikitarren herri-bazkaria, edota, saltsa bereziko Kaletxiki-Sorabilla herri kirolen desafioa.



Ostiral iluntzea Kaletxikiko jaietan, Joselu Anaiak oholtzan, musika jotzen.

## "Auzo txikia handi bilakatu dugu"

MIKEL FRANKO KALETXIKI JAI BATZORDEKO KIDEA

Igande eguerdian ez ziren gutxi antolaketa-lanetan murgilduta zebiltzanak: txosnen kudeaketa, bazkariaren antolaketa, ekitaldiak bideratzea... haien artean lanean zen Mikel Franko, Kaletxikiko Jai Batzordeko kidea.

**Soka dantza amaitu berri da, ekitaldi sinbolikoa auzoko jaietan. Nola igaro dira aurreko bi gauak?**

Primerakoa izan da. Ostiralean eguraldia okertu zen baina, oro har, eguraldia lagun, sekulako giroa egon da auzoan.

**Festazale asko hurbildu zaizkizue, gainera.**

Jende pilo a etorri da. Txosna topera egon da, plazan ere jendetza... bizilagunak pozik antzematen ditugu. Giroa aparta izan da.

**Giro sanoa izan al da, oro har, aurtengoan?**

Beti, hasieratik amaiera bitarte.

**Igandean beroa nagusitu da eta aurretik duzue bazkaria, herri-kirolak saioa...**

Txosnan gauza handirik ez zaigu geratzen, aurreko bi gauetan ia dena agortu delako. Baina, tira, zerbait egingo dugu.

**Jaian atarian lan handia pilotzen da eta orain amaitzen ari zaretela, antolaketa lan guztiak merezi duela sentitzen duzue?**

Bai, zalantzarik gabe. Urte osoa pasatzen dugu bileretan, lanean... une batzuk astunak egiten zaizkigu baina asteburua nola igaro den ikusita, auzoa eta herria pozik antzematen dugu.

**Joselu Anaiak eta Gozategiren gaua izan da aurtengoa. Horrelakoei heltzeko zer behar da? Anbizioa? Ardura handiko erabakia baita.**

Urte batetik bestera hobetzea, antolaketa ikuspegitik koska bat igotzea... hori da apustu horien alde egitearen arrazoia. Ea noraino iritsi gaitezkeen eta, emaitza, agerikoa da: auzo txikia handi bilakatu dugu.

**Musika ezaguna eta hanburguesa-afaria: arrakastaren formula.**

Oso gau ona izan zen. Perurena etxeok ekarritako guztia saldu zuten.

**Datorrenerako gogotsu zaudete ala urrutiegi dago oraindik?**

Urruti dagoela dirudi baina laister, irailean, 2027koari helduko diogu.



AIURRI



Danborrada, Ontza elkartearen parean geldialdia egin ostean. AIURRI



Hor Konpon txaranga sortu berria da, Jesus Mari Ibañez sustatzaile nagusia izanik. AIURRI



Danborrada jendetsua egin zuten larunbat arratsaldean. AIURRI



Jai giroa kalitatezko musika saioarekin bustitzen dakien taldea da Alaiki. Etxeberrietan, abuztuaren 1ean.

## Sorabilla gailendu zen igande arratsaldeko desapiyuan

Sorabillako taldeak irabazi zuen (4-3) herri kirol Desapiyua, zazpi kirol-jardueretan indarrak neurtu eta gero. Ikuskizun polita osatu zuten Sorabilla eta Kaletxikiko kirolariek, ikusleen gozamenerako. Dena esatera, kirolarien jarduna itzaletan ikusteko modukoa zen. Aiurri.eus gunean ikusgai dago laburpena, bideoak atalean.

### Ingudea:

Kaletxiki: Josu Otamendi.  
Sorabilla: Arkaitz Amenabar.

### Txingak:

Kaletxiki: Iñigo Arin/Borja Patino.  
Sorabilla: Julen Korrotxano/Amets Arabaolaza.

### Lokotxak:

Kaletxiki: Marta Otegi/Ainara Paredes.  
Sorabilla: Izaro Tapia/Ane Amenabar.

### Zaku-lasterketa:

Kaletxiki: Ruben Lozano/Iñigo Arin.  
Sorabilla: Xabier Alkorta/Koldo Ponce.

### Karretilla lasterketa:

Kaletxiki: Unai Lopez/Unai Alkorta.  
Sorabilla: Amets Arabaolaza/Maidar Arabaolaza.

### Laia:

Kaletxiki: Gorka Mateo.  
Sorabilla: Mikel Amenabar.

### Sokatira:

Bi taldeak.



Desafioan parte hartu zuten kideak, taldeko argazkian. Beltzez, kaletxikitarrak. Urdinez, sorabillatarrak. Gorriz, Juanjo Agudo epailea. AIURRI



Sorabillako Xabier Alkorta, zaku lasterketan. AIURRI



Kaletxikiko Ruben Lozano, zaku lasterketan. AIURRI

## Azken unerarteko misterioa

“Kandidaren figura nork beteko du aurten?”. Hori izaten da Kaletxikiko festak heldu aurretik herrian ahotik belarrira egiten den galdera horietako bat.

Bada, ezkutuan eduki dute izendatze hori aurten; ez da modurik izan jakiteko bere identitatea. Txantxetan ere, Aiurriko kazetariak saiatu izan dira, txantaien bidez, Jai Batzordeko kideekin; baina gor eta mutu agertu izan zaizkie horiek!

Goikoplazan, ostiralarekin, arratsaldeko 19:00ak arte itxaron behar izan zen jakiteko nor zen Kandida: Arritxu Zaldúa Cuende, kiromasajista ogibidez, kaletxikitar peto-petoa, alegia.

Egia esanda, fin-fin bete ditu Kaletxikiko jaietan ikonoa den Kandidari dagozkion erantzukizunak: batik bat, Kandida eta

Txikitxuen etorrera eta festen hasiera ekitaldia, Soka Dantza, nahiz jaien amaiera aldera zapi berde beltza gordetzearen eta agurraren errituala.

Igande ilunabarreko agurreko azken ekitaldian aitortu zuen oroitzapen ederrak gordeko dituela 2026ko jaiekin. Ziur gara hala izango dela, ohorezko gauza behar baitu izan kaletxikitar batentzat Kandidaren rolean ospatzea jaiak.

“Kaletxiki handia, espiritu handia, hori da gure leloa eta indarra!” aldarrikapen hori oihukatuta kendu zituen gainerik Kandidari dagozkion kapela eta jantzi dotorea Zalduek, eta kaletxikitar xumeaz jantzi zen berriro orduan.

Espiritu horri helduta, Jai Batzordeko kideak honezkerok hasiko ziren 2027an Kandido izango denaren bila.



Arritxu Zaldúa Cuende izan da aurtengo Kandida. AIURRI



Soka Dantzaren amaieran ateratako argazkia. Bertan dira Olagain Udai Txistulari elkarteko kideak, Kandida, Urki Dantza Taldeko kideak eta dantzara batu ziren zenbait herrikide. AIURRI



Auzo-bazkarirako txartel guztiak saldu zituzten. AIURRI



Kaletxikiko XIX. Esku Pilota topaketa Goikoplazan egin ohi da. AIURRI



Jose Mari Gomendio, Maria Pilar Arabaolaza eta Victor Molano omendu zituzten jaietan, 80 urte bete baitituzte. AIURRI



Gaztañaga izan zen garailea Kaletxikiko XXXI. Sagardo txapelketan. Lizeaga, bigarren, eta, hirugarren, Itsasburu. AIURRI



Sagardo dastaketa hitzordu jendetsua izan ohi da. AIURRI

## DATOZEN HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ODOL-EMAILEAK

**ANDOAIN Odol-emaileak**

Hitzordua telefonoz hartzea  
komeni da: 943 007 884.  
Internet bidez ere hartu daiteke  
hitzordua, "gotatanta.eus" gunean  
sartuta.

**16:30-20:15, Osasun etxea.**  
**Uztailak 13, astelehena.**

**URNIETA Odol-emaileak**

Hitzordua telefonoz hartzea  
komeni da: 943 007 885.

**16:30-20:30, Gazteleku.**  
**Uztailak 16, osteguna.**

## JAIK

**ANDOAIN Karrikako jaiak****Uztailak 10, ostirala:**

19:30 Txupinazoa.  
20:30 Bokata-afaria.  
23:00 Kresala taldea.  
**Uztailak 11, larunbata:**  
11:30 Puzgarriak eta apar-festa.  
14:00 Makarroi-jatea eta bingoa.  
16:30 Puzgarriak.  
18:30 Dantza-tailerra.  
22:30 Bang Royale taldea. DJ Louky.

**Uztailak 12, igandea:**

11:30 Meza, Sorabillan.  
12:00 Toka txapelketa.  
12:30 Sagardo dastaketa.  
16:00 Karrikako mus txapelketa.  
19:00 Got Talent Karrika.  
19:45 Play-back saioa.  
21:00 DJ Donoso.  
23:30 Azken traka eta su-artifizialak.  
**Karrika auzoa.**  
**Uztailak 10, 11 eta 12.**

**ANDOAIN Etxeberrietako jaiak**

laz bi egun izan ziren. Aurten, lau.  
**Etxeberrieta.**  
**Uztailak 30-Abuztuak 2.**

**ANDOAIN Sanestebanak**

Beranduxeago datoz aurtengo jaiak.  
**Goiburu.**  
**Uztailak 31-Abuztuak 3, 7, 8 eta 9.**

**ANDOAIN Sanrokeak**

Aurten, asteburuan dira jaiak.  
**Buruntza.**  
**Abuztuak 15 eta 16.**

**ANDOAIN Sorabillako jaiak**

Abuztuko azken asteburuan.  
**Abuztuak 28, 29 eta 30.**



Antzezlanean herriko aktoreek parte hartuko dute. SAROBE

**URNIETA Zurriburri**

Urnietako antzerki tailerraren erakustaldia. "Terror y miseria en el primer franquismo" obra antzetzuko dute. Aktoreak: Esther Modia, Mikel Rodenas, Pilar Brandariz, Julio Nogales, Xabi Odriozola, Koro Berasategi. Mikel Agirregomezkorta zuzendariak ere antzezlanean parte hartuko du.

**19:00, Sarobe. Uztailak 11, larunbata. Sarrera dohainik.**

## UDAGIROAN

**ANDOAIN Hainbat hitzordu****ZINEMA KALEAN****Minecraft film bat**

Filma euskaraz izango da.  
Uztailak 9, osteguna.  
19:30, Etxeberrieta plaza.

**Como entrenar a tu dragon**

Filma gaztelaniaz izango da.  
Uztailak 16, osteguna.  
19:30, Goikoplaza.

**KONTZERTUAK****Kresala taldea**

Uztailak 10, ostirala.  
22:30, Karrika.

**Gartxot Unsain, Garazi Esnaola**

Uztailak 18, larunbata.  
18:30, Otieta parkea.  
Bisitarien etxearen aurrealdean.

**Xsakara**

Uztailak 30, osteguna.  
22:30, Etxeberrieta plaza.

**Los Zopilotes Txirriaos**

Abuztuak 29, larunbata.  
Sorabilla.

**IPUINGIRO****Joxepa Tronpeta istorioz beteta**

Ixabel Agirresarobe.  
4 urtetik aurrera.  
Uztailak 14, asteartea.  
18:00, Leizaur parkea.

**Ispiluak**

Dorleta Kortazar.  
Uztailak 21, asteartea.  
19:00, Leizaur parkea.

**IKUSZIRKUS****Anonima**

Mugimendu-zirkua, Vaiven Circo.  
Irailak 18, ostirala.  
19:30, Bastero Kulturguneko auditorioa.

**Txondor plaza**

Kale antzerkia, Argimalutak.  
Irailak 26, larunbata.  
18:30, Goikoplazan.

**HAUR IKUSKIZUNA****"Zintzilik", Potx Magoa**

Abuztuak 8, larunbata.  
12:00, Goiburu auzoa.

**BAKARRIZKETA****"Simpol", Maria Cruiskshank**

Abuztuak 15, larunbata.  
19:30 Buruntza auzoa.


## ZINEMA

**ANDOAIN****ZINEMA KALEAN****Minecraft film bat**

Osteguna, 9. 19:30.  
Etxeberrieta.

**Como entrenar a tu dragon**

Osteguna, 16.  
19:30. Goikoplaza.



## SINOPSISIA

**Minecraft film bat**

**Zuzendaria:** Jared Hess. **Aktoreak:** Jack Black, Jason Momoa, Kate McKinnon... **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Abentura. **Iraupena:** 101 m.

**Film ezaguna, euskaraz, dohainik eta kale giroan**

Ongi etorri Minecraften mundura. Sormena funtsezkoa da bizirik irauteko. Lau xeberre –Garrett "Zaborbiltzailea" Garrison (Momoa), Henry (Hansen), Natalie (Myers) eta Dawn (Brooks)— ohiko arazoekin borrokatzen ari dira bat-batean atari misteriotsu batean murgiltzen direnean. Hots, irudimenaz elikatzen den mundu harrigarri kubiko batean. Etxera itzultzeko, mundu hau menderatu beharko dute bilaketa magiko batean murgiltzen diren bitartean. Elkarrekin, euren abentura erronka bihurtuko da bostentzat. Beren ezaugarriekin konektatu beharko dute... mundu errealean aurrera egiteko behar dituzten trebetasun bereberekin, alegia.



andoa**INDARRA**  
euskaraz



Ongi Etorri Baserrira 2026 ekimeneko argazki-sorta: Tolosaldean, Balerdipeko Erleak. ONGI ETORRI BASERRIRA



Aralarren, Buruntzuzingo borda. ONGI ETORRI BASERRIRA

**Erredakzioa** URNIETA

Arrakastari eusten dio "Ongi etorri baserrira" ekimenak. ENBa sindikatuaren ekimena 11. ediziora iritsi da eta aurreko astebururako zabalduzako eskaintza ia guztietan agortu ziren sarre-  
rak.

"Gure jakien jatorria berraurkitzeko eta, beren ingurune naturalean, mahaian dastatzen ditugun elikagaiak ekoizten dituzten baserrietarrak ezagutzeko aukera ezinhobea" da ENBa sindikatuak antolatzen duen ekimena. Uztailaren 3an eta 4an Gipuzkoa eta Bizkaiko baserrietarrek euren baserrietako atekak zabaldu zituzte beren ikuiluak, baratzeak eta landagunak ezagutzera emateko. Nekazal sindikatuaren hitzetan, "ekimena bertako elikagaien aldeko apus-

# Arrakastari eutsi diote

Baserrietako atekak zabal-zabalik izan ziren aurreko asteburuan, "Ongi etorri baserrira" ekimenari esker, herritarrei lehen sektorerara gerturatzeko ahaleginean. Tartean ziren Urnietako Goiburu aldeko Adarrazpi eta Lategi auzoko Eula

tu garbia da, landaguneari balioa emateko, bertako turismoa sustatzeko eta, nola ez, gure gastronomia goratzeko". Familian edo lagunartean egiteko aukera

aparta da. Hona inguratzen diren turistak ez dira gutxi izaten baina, bestalde, askotxo dira inguruko herrietatik bisitaldian abiatzen diren familiak.

Urnietan, aurten ere, bi aukera izan dituzte bisitariak. Lategi auzoko Eulan sagastiak eta sagardotegiaren ekoizpena ezagutu ahal izan dituzte. Sagardoak

indarra baldin badauka, Beterri-Buruntza eskualdean da hori. Bisitarien begietara bogan dago euskal sagardoa.

Eta, bestalde, Goiburun, Adarrazpi baserriko ardiak ezagutu eta bertan egiten duten gaztaren eta mamiaren berri izan zuten. Izan ere, Idiazabalgo gazta egiten dute Adarrazpi gaztandegian. Markak edo zigiluak interes handia pizten du, bereziki, kanpoko bisitarien artean.

Ekimena, bestalde, baliagarria da bertako biztanleentzat. Hala, ENBa sindikatuaren ekimenaren bidez, Gipuzkoako eta Bizkaiko baserri eta ustiapen ugari ezagutzeko aukera dago. Eskaintza zabala da: Aralarren Buruntzuzingo borda, Tolosaldean Balerdipeko Erleak, Goierriin Oiarbi-Saletxe baserrira...




Zarautzen, Mokoroa txakolindegia. ONGI ETORRI BASERRIRA



Asteasun, Iturta Sarobe baserrira. ONGI ETORRI BASERRIRA

***Mendira,  
hondartzara,  
festara...***

***Uda honetan ere  
zurekin eramango  
gaituzu***



---

***Okm:***  
*batzen gaituen  
distantzia*